

BILBAO / Haurren ipuinetako pertsonaiei buruzko marrazki lehiaketa antolatu du

BILBO. Bilboko Udal Liburutegien Sareak 4 eta 13 urte arteko umeei zuzendutako "Zeu Margolari" haurren ipuinetako pertsonaiei buruzko lehiaketa antolatu du. Haurrek apirilaren 9ra arte aurkeztu ahal izango dituzte euren marrazkiak Begoñako liburutegian.

Marrazkiarekin batera, izen-abizenak, adina eta harremanetarako telefono zenbakia aurkeztu beharko dute, antolatzaileek azaldu dutenez.

Teknika librez egin ahal izango diren marrazkiak umeei gehien atsegin dituzten ipuinetako pertsonaiekin inspiratuta egon beharko dira: Txanogorritxo, Kika Super sorgina, Geronimo Stilton, Argitxo, eta abar.

Sariak apirilaren 12an banatuko dira, arratsaldeko 18:00etan, Begoñako liburutegian, aurkeztutako marrazki guztiekin egingo den erakusketaren inaugurazio ekitaldian.

Ekimen hori, Haurren eta Gazteen Liburuen Nazioarteko Egunaren inguruan Bilboko Udal Liburutegien Sarean burutuko diren jardueren barruan sartzen da.